

KOSTUEN EGITURA

Enpresa bat sortzerakoan oso garrantzitsua da zer kostu edukiko dituen finkatzea. Beraz, atal hau gure negozioaren kostuak zeintzuk diren argitzeko erabiliko dugu, hau da, gure kostuak zehazki zeintzuk diren azalduko ditugu. Horrela, zenbateko kostu-egitura edukiko dugun kalkulatuko dugu. Bi zatitan banatuko dugu: alde batetik, hasierako kostuak, eta bestetik, hilabeteko kostuak. Hilabeteko kostuetan kostu aldakorrak eta kostu finkoak jarraian adieraziko ditugu.

Ondorengo taulan hasierako inbertsioan lortu beharreko ondasunak zehaztuko ditugu, beharrezko tresnak eta makineria lortzea ezinbestekoa baititugu muntaiarekin hasteko.

HASIERAKO INBERTSIOA

Kontzeptua	Prezioa
Josteko makina eta hariak	105€
2 ordenagailu	$300 \times 2 = 600\text{€}$
Bulegoko altzariak	250€
GUZTIRA:	955€

Horrez gain, hilabetero kostuak ordaindu beharko ditugu. Gure produktua sortzeko ondasunak behar ditugu, eta horregatik, diru-irteerak izango ditugu. Hona hemen kostu finkoak, hilero ordaindu beharrekoak eta aldaezinak direnak; izan ere, gastatu beharreko diru kantitatea ez da aldatuko kontsumoaren arabera.

KOSTU FINKOAK

Kontzeptua	Prezioa
Lokala (UGGASA) - Wifi - Argindarra - Ura - Gasa	90€
Lankideen soldatak (4)	$2.000 \times 4 = 8.000\text{€}$
Webgunea	10€

GUZTIRA:	8.100€
----------	--------

Bestetik, kostu aldakorrak izango ditugu. Haien prezioa eskariaren arabera aldatu egingo da, eta erabileraren arabera ere bai.

KOSTU ALDAKORRAK (hilabetekoa)

	Kontzeptua	Prezioa
Manta egiteko materiala	Beirazko perlak	2,5€
	Oihala	8,85€
	Bigungarria	13,5€
	Hari berogailuak	8€
	Erregulatzailea	4€
	GUZTIRA	36.85€/unitateko
Aurreikuspena	130 unitate/hileko	4.790,5€

Azkenik, hilabeteko kostu finkoen eta aldakorren batura egin dugu, hilero gastatuko dugunaren aurreikuspen bat izateko.

HILEKO GUZTIRAKO GASTUA

Kontzeptua	Prezioa
Kostu finkoak:	8.100€
Kostu aldakorrak:	4.790,5€
Guztira:	12.890,5€

Aurreko tauletako datuak kontuan hartuta aurreikus dezakegu hilabeteko kostu totalak 12.890,5€-koak izango direla.